

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA (LBU) 2011

Sei pertsona okupatatik batek lanaldia luzatu behar izaten du ia egunero

Hiru pertsona okupatatik batek baino zerbait gehiagok irteteko ordutegi malgua du

Biztanle okupatuen %17,4 beti, eta antzeko ehuneko bat zenbaitetan, lanaldia luzatu beharrean egoten dira, Eustaten datuen arabera. Ordutegia luzatu behar honek, beti edo batzuetan, enplegataileen eta autonomoen %60 ingururi eragiten dio. Horrela leudeke sektore pribatuko soldatuen %29,6 eta publikoen %28,2.


Irteteko malgutasunaz -bateragarritasuna hobetzeko beste lanabes bat- okupatuen hirutik bat - %36,1- baliatzen da; emakumeak gutxiago -%32,6 gizonak baino -%39,1.

Etxean bertan, %8,1ek noizean behin lan egiten du eta %5,3k egun erdietan gutxienez. Oro har, enplegudun zortzi pertsonatik batek baino zertxobait gehiagok noizean behin edo maizago etxean egiten du lan.

Pertsona okupatuen %76 lanetik irten daiteke norbere kontuetarako

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurrien artean, lanetik irten ahal izatea okupatu gehien-gehienaren eskura dago; soldatarik gabeko egunak okupatuen %63,1ek eska ditzakete. %60 inguruk aise lor ditzake eszedentziak edo lanaldi-murrizketak.

Euskal AEko landunak, baimenak eskatzeko zailtasunaren arabera (%). 2011



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU)

Oro har ez dago alde handirik sexuen artean. Emakumeek aiseago (%61,3) eska dezakete lanaldi-murrizketa gizonen (%54,3) baino. Berriz, noizean behineko lanetiko irtenaldi baterako, emakumeen arteko %26,6k zail du, gizonen artean %21,7 delarik. Adinean aurrera joan ahala, seguru asko lan-antzinatasunagatik, aiseago lortzen dira bateragarritasunari laguntzen dioten neurriak.

Kooperatibetako kideek eta langile publikoek errazago dute baimenak lortzea, beste langile batzuek baino. Kontrako kasuan daude enplegatzaile eta langile autonomoak, muga gehiago. Autonomoen erdiek oso nekez hartuko lukete eszedentziaren bat edo lanaldi-murrizketa; %43,9rentzat oso zaila da egun bateko lanari uztea eta %21,8rentzat noizean behin lanetik irtetea. Enplegatzaileen arteko %45ek dio oso zail zaiela eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzea; %39k gauza bera dio egun bat libre hartzeaz eta %19,3k noizean behin lanetik irteteaz.

Lau enplegudunetatik batek uste du famili arrazoiengatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeak kalte handia egingo liokeela ibilbide profesionalari

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeak sustapen profesionalari kalte egingo dion beldurra antzekoa da emakumeengan eta gizonengan; nabarmenagoa da gazteen artean. Bost emakumetatik batek uste du amatasuna kaltegarri litekeela sustapenerako; berriz, gauza bera aitatasunaz gizonen %5,9k bakarrik uste du. Halere, sei gizon enplegudunetako batek uste du aitatasun-baimena eskatzeak kalte handia lekarkiokeela ibilbide profesionalari.

Gipuzkoako pertsona okupatuaren erdiek nahiago dute enpresa txiki bat lanerako, %51,9k sektore pribatua eta %15,9k autonomia izatea

Gipuzkoak profil zehatza du lan lehentasunei buruz: Gipuzkoako pertsona okupatuaren erdiek nahiago dute enpresa txiki bat lanerako, %51,9k sektore pribatua eta %15,9k autonomia izatea. Oso bestelakoak dira arabarren lehentasunak: %67,7k enpresa handia aukeratuko luke, %69,2k sektore publikoa, %13,4k haren negozioa kudeatu nahi luke.

Bizkaitarrak gertuago daude arabarrendandik: %60,2k enpresa handia nahiago, %62,6k sektore publikoa eta zazpitik batek -%15,9k- baino zertxobait gehiagok haren negozioa.

Sexuen artean alde garbiak badira: emakume okupatuaren %67,4k sektore publikoa nahiago du, gizonen %51,5ek. Gizon okupatuaren %18,3k autonomo izatea nahiago, eta emakumeen artean %12,3k besterik ez.

Bost gizonetatik batek hiru ordu edo gehiago pasatzen ditu mendeko senideak zaintzen; emakumeen artean, %41,1ek

Euskal AEko mendeko pertsonen %86k 65 urte edo gehiago ditu, %74 emakumeak dira eta %30 pertsona okupatuaren etxean bertan bizi dira.

Mendeko senideak zaintzekotan, emakume okupatuaren %41,1ek egunero 3 ordu edo gehiago ematen ditu; gizonen %19,6k egiten du beste horrenbeste.

Mendeko pertsonak zaintzeko orduan, bi ezkontideak edo bikotekideak lanean ari diren familia-etxeetan eta lan-ordutegitik kanpo denean, erdietan beste senideak dira nagusiki arduratzen direnak, soldatarik gabe, eta kasuen %23,9tan bi bikotekideak arduratzen dira. Kasuen %6,2tan emakumeak bakarka arduratzen dira mendeko pertsonaz, eta gizonak bakarka sekula ez.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU). Prentsa-ohar gehiago